Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Higinio Etxabe Getaria

Eskoriatza, Gipuzkoa (1933)



Aurkibidea

Biografia



Getariako Garate kale-baserrian jaio zen. Jaioberri zela Fraisoroko sehaska etxean utzi zuten. Eskoriatzako Mendiola auzoko Uxarte (Uriarte) baserrian jaioberri zen umea galdu zuten, eta Higinio jaso zuten Fraisoron. Aita Uxartekoa eta ama Lete auzoko Letegaraikua zen. Bederatzi seme-alaba izan zituzten, Higinio hirugarrena zelarik. Marianistekin 13 urte eta gero San Viatorren beste urtebete bat eskolatu zen. Azbe lantegian 11 urtez lan egin eta gero, “Fundiciones Esteibar” sortu zuen lagun batzuekin. Comet lantegiarekin lehenengo, eta Ulgorreko galdategiarekin elkartuta geroago, Ederlan kooperatiba sortu zuten 1963. urtean.Aretxabaletako Arkarazo auzoko Mendibitzu baserriko Benita Leterekin ezkondu zen. Lau seme dituzte. Mendiolako abade etxean bizi dira azken 45 urtetan. Etxea erosi eta Garate izena jarri zioten.

Zintak

ESK-062

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2010-03-02
- **Iraupena**: 94 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Sapsootham, Itziar

ESK-091

- **Proiektua**: Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elorza Billar, Amaia
- **Data**: 2007-01-01
- **Iraupena**: 29 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Emalea**: Zuazo Zelaieta, Koldo

Pasarteak

1. Eskoriatzako familia baten hazia

- **Erref**: ESK-062/002
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:00:35. **Bukatu**: 00:02:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:
Getariako Garate baserrian jaio zen. Amak ezin zuen Higinio hazi eta Fraisoron utzi zuen. Handik, Eskoriatzako familia batera eraman zuten.

2. Fraisoroko haurrak

- **Erref**: ESK-062/003
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:02:07. **Bukatu**: 00:03:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:
Nahiz eta Eskoriatzako familia baten hazi, Foru Aldundiak, Fraisorotik irteten ziren haurren kontrola eramaten zuen. Andres Izaskun zuzendaria, bera ikustera joan zen Eskoriatzara behin, Higinioren hezkuntzaz berri izateko.

3. Ama biologikoak erreklamatua

- **Erref**: ESK-062/004
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:03:38. **Bukatu**: 00:06:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Hamar urte zituenean galdategian lan egiten zuen eta ama biologikoak erreklamatu zuen. Nola ezagutu zuen ama. Ez zen guraso biologikoekin bueltatu.

4. Arreba biologikoaren bila I

- **Erref**: ESK-062/005
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:06:55. **Bukatu**: 00:09:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Familia biologikotik arreba bat zuela jakin zuenean, haren bila joan zen Getariara. Abadeak esan zion zein zen familiaren baserria.

5. Familia biologikoaren baserria

- **Erref**: ESK-062/006
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:09:15. **Bukatu**: 00:11:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Familia biologikoaren baserria ezagutzen. Nolakoa zen baserria. Aita eta biak joan ziren hara, Higinioren familia biologikoa ezagutzera. Ama nola jantzita zegoen.

6. Arreba biologikoaren bila II

- **Erref**: ESK-062/007
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:11:52. **Bukatu**: 00:15:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Familia biologikoaren baserria bisitatzen egon eta gero, Getariako abade zen Telesforo Epeldek ondoko baserriko emakumeari kontatu zion Higinio bertan egon zela arrebaren bila. Bere bitartez jakin zuen Irunen bizi zela eta Bidasoa tabernan lan egiten zuela. Eskutitz bat idatzi zion, ezagutzeko eskatzen. Arreba Zumaiako familia batean hazi zen eta hiru urterekin familia biologikoarekin bueltatu zen.

7. Arreba biologikoa ezagutzen

- **Erref**: ESK-062/008
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:15:07. **Bukatu**: 00:17:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Arreba biologikoak eskutitza erantzun zion eta hitz ordu bat ipini zuten, elkar ezagutzeko. 1956ko abenduaren 23an ezagutu ziren, Donostiako Casa Domingon. Arrebari buruz hitz egiten du.

8. Arreba biologikoa ezagutzen II

- **Erref**: ESK-062/009
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:17:27. **Bukatu**: 00:19:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Lehenengo aldiz Irunera zihoala arreba ikustera, bere ama biologikoa ezkondu zen. Ezkontzako gonbidatuak bere ondoan jarri ziren trenean eta Higiniok dena entzun zien. Ama biologikoa ez zuen gehiago ikusi, gogorra egiten zitzaion.

9. Eskoriatzako Maristak eta San Viator eskolak

- **Erref**: ESK-062/013
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:22:38. **Bukatu**: 00:25:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:
Eskoriatzako Maristetan eta gero San Viatorren ikasi zuen. Eskolan gaztelaniaz ziren baina kanta batzuk euskaraz abesten zituzten,.

10. Eskolan dotrina bakarrik

- **Erref**: ESK-062/014
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:25:13. **Bukatu**: 00:27:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:
Euskaraz hitz egiteagatik, Espainiako banderari begira jartzen zituzten. Zigor fisikorik ez. Dotrina. Jaunartzea egin aurretik ez zen eskolara joan.

11. Hamaiketan etxeratze-agindua

- **Erref**: ESK-062/015
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:27:33. **Bukatu**: 00:28:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:
Umetako jolasak, Auzoetako erromeriak. Gaueko hamaiketan etxeratze-agindua zegoen eta kanpaien bitartez abisatzen zen.

12. Uxarte baserriko ganadua

- **Erref**: ESK-062/017
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:30:02. **Bukatu**: 00:33:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Familiako Uxarte (Uriarte) baserrian zuten ganadu mota: behiak, idiak, txahalak, ardiak... Ardientzat txabola. Ez da inoiz baserriko lanen zalea izan eta lantegian hobeto moldatu izan da. Artaldea neguan baserrian gordetzen zuten. Baserriko lurzoruak. Morokilak jaten zituzten.

13. Asensioko fronteko hildakoak idiekin jeisten

- **Erref**: ESK-062/018
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:33:16. **Bukatu**: 00:36:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Asension frontea zegoen eta Higinioren aitak hildakoak eta zaurituak jaisten zituen Eskoriatzara idi eta gurdiekin. Hiru egunez Peñakulu baserrian izan ziren. Mendiolako auzoan gerrak ez zuen eragin zuzenik egin. Ez zuten seniderik galdu gerran.

14. Idiekin ikatza garraiatzen

- **Erref**: ESK-062/019
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:36:01. **Bukatu**: 00:37:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:
Idiak etxeko lanetarako eta Cerrajera-rentzat ikatza garraiatzeko ere.

15. Auzolanean garia jotzen

- **Erref**: ESK-062/022

- **Iraupena**: 0:02:14. **Hasi**: 00:39:19. **Bukatu**: 00:41:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:
Bizilagun guztiek laguntzen zuten baserri baten eta bestean garia jotzen. Hamarretako handiak egiten ziren denen artean. Egun bat edo egun bat eta erdian egiten zuten lana.

16. Garia ereiten I

- **Erref**: ESK-062/023
- **Iraupena**: 0:03:52. **Hasi**: 00:41:33. **Bukatu**: 00:45:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:
Garia azaroa hasieran ereiten zuten. Artoa eta garia txandaka ereiten zuten. Garia ereiteko egun bat nolakoa zen. Idiak eta goldeak. Lanak.

17. Argindarra etxean

- **Erref**: ESK-062/025
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:46:44. **Bukatu**: 00:48:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Garia ereiteari utzi ziotenean irina erosten zuten. Umea zenean, argindarra errekaren indarrarekin lortzen zuten. Betidanik argindarra izan dute etxean. Turbina.

18. Etxean urik ez

- **Erref**: ESK-062/027
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:50:16. **Bukatu**: 00:51:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Etxean ura berandu sartu zuten. Askan garbitzen zuten. Depositu bat eraiki zuten gero, eta ura iturburu batetik lortzen zuten. Baldea berotu eta bertan garbitzen ziren.

19. Arropa askan garbitzen zen

- **Erref**: ESK-062/028
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:51:48. **Bukatu**: 00:54:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Arropa nola garbitzen zen hiru astetik behin. Lixiba. Erramua. Auzoan ez zegoen arropa garbitzeko labaderorik. Arropa nola garbitzen zen.

20. Garai batean txori gehiago zeuden

- **Erref**: ESK-062/029
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 00:54:39. **Bukatu**: 00:57:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna » Hegaztiak

Laburpena:
Errekara ez ziren joaten. Ehizan berandu hasi zen baina beti egon dira. Txoriak ikustea asko gustatzen zaio. Txori asko galdu egin dira.

21. Benita, abadearen astoa

- **Erref**: ESK-062/030
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:57:36. **Bukatu**: 00:58:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Ardiak, ganadua eta astoa zuten baserrian. Abadeak ere astoa zuen eta Benita deitzen zen. Emearengatik gehiago ordaintzen zen.

22. Fagor Ederlan-en sorrera

- **Erref**: ESK-062/033
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 01:03:00. **Bukatu**: 01:06:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:
“Fundiciones Esteibar” sortu zuen lagun batzuekin. Comet lantegiarekin lehenengo, eta Ulgorreko galdategiarekin elkartuta geroago, Ederlan kooperatiba sortu zuten 1963an.

23. Gaztainak maiatzerarte irauten dute

- **Erref**: ESK-062/039
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 01:17:52. **Bukatu**: 01:18:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendiko bilketak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:
Familia bakoitzak 3 astez gaztainak biltzen ditu. Gaztainak maiatzerarte irauten dira. Ilargia ilbeheran dagoenean, buelta eman behar zaie. Gaztainak jateko moduak.

24. Oinetako eta olio falta; morokilak

- **Erref**: ESK-062/040
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 01:18:59. **Bukatu**: 01:20:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura

Laburpena:
Goserik ez zuten inoiz falta, baina oinetakoak eta olioa beti falta ziren. Azokan erositako abarketak hurrengo egunean puskatzen zituzten. Morokila asko jaten zen.

25. Gosea; tripa-truke lanak

- **Erref**: ESK-062/041
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 01:20:29. **Bukatu**: 01:21:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerraostean, Tripa-truke bidez lanera joaten zen jendea. Kalean gose handia pasatzen zuen jendeak. Baserrian beti babarruna jaten zen.

26. Garia erein ostean, afari berezia

- **Erref**: ESK-062/042
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 01:21:44. **Bukatu**: 01:23:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Garia ereiten bukatzen zutenean, "garafai" afaria egiten zuten etxean. Bildotsa afaltzen zuten.

27. Txerriaren puxikatik olioa lortzen

- **Erref**: ESK-062/044
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 01:23:39. **Bukatu**: 01:26:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:
Txerria hiltzen zenean, puxika ondo garbitu eta olioa lortzen zuten. Gosea ez zuten pasa baina beti berdina jaten zuten. Morokilak, gaztainak, patatak... Eguerdian beti babarrunak.

28. Garizuman haragia jateko baimen bat

- **Erref**: ESK-062/045
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 01:26:22. **Bukatu**: 01:27:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:
Garizuman okela jateko, apaizak baimen bat ematen zien. Baimen hori ordaindu egiten zuten.

29. Baserritarren hiletak arratsaldez

- **Erref**: ESK-062/048
- **Iraupena**: 0:03:02. **Hasi**: 01:31:10. **Bukatu**: 01:34:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:
Elizak baserritarrentzat egindako onura onena, hiletak arratsaldera pasatzea izan zen. Garai batean goizez izaten ziren eta gero denak hildakoaren baserrira joaten ziren. Asko mozkortu egiten ziren, etxeko janaria jan, liskarrak sortzen ziren... Horrekin amaitzeko, apaizak baserritarren hiletak arratsaldera pasatu zituen. Batzuk baserriaren kostua ordaindu ezin ez eta beste batzuekin trukatzen zuten etxea.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-22

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com